

Kontrol eta Berme Batzordearen erregelamendua



ehbildu

I. Titulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Batzordearen izaera eta eginkizuna

Kontrol eta Berme Batzordea (aurrerantzean, Batzordea) da EH Bilduren funtzionamendu demokratikoa eta gardena zaintzeko organo arduraduna, eta bilkideen eta gobernu-organoen eskubideak bermatzeaz ere arduratzen da. Zuzendaritza-organoezko independentzia osoz egikaritzen ditu bere eginkizunak.

2. artikulua. Osaera eta hautaketa

EH Bilduko Biltzarrak hautatutako bost (5) kidek osatuko dute Batzordea, eta bi (2) emakumeren ordezkariak bermatuko da gutxienez. Gainera, ordezeko bat hautatuko da. Hurrengo biltzar-prozesura arte egikarituko dute beren agintaldia kide guztiek.

3. artikulua. Agintaldia, ordezkapenak eta bateraezintasunak

Kideak ezin izango dira agintaldian ordeztu justifikatutako bazarik izan ezean, eta ordezkoak beteko du baja hori. Kide izatea bateraezina da edozein kargu organiko edo publikorekin EH Bildun edo Federazio barruko edozein alderditan (estatutuen 28. artikulua).

4. artikulua. Jarduteko printzipioak

EH Bilduko estatutuetan aitortutako independentziaren, konfidentziasunaren, ekitatearen, legezotasunaren eta funtsezko eskubideezko errespetuaren printzipioei jarraikiz jardungo du Batzordeak.

II. Titulua. Eginkizunak

5. artikulua. Eginkizun orokorrak

Honako hauek dira Batzordearen eginkizunak, besteak beste:

1. Txostenak egitea eta irizpenak edota gomendioak ematea Estatutuen interpretazioari buruz, gobernu organoen eskariz,
2. Bilkideek edo gobernu-organoek Estatutuen interpretazioari buruz edota Erregelamenduen eta barne arauen egokitasunari buruz egindako kontsultak ebatzea.
3. Estatutu-eskubideak urratzeagatiko babes-eskaerak ebatzea.
4. Diziplina-espedienteen ebazpenen aurka jarritako babes-errekursoak ebatzea.
5. EH Bilduko organoek hartutako erabakien inpugnazioak ebatzea.
6. Batzar Nagusiari urtean behin Batzordearen jardueri buruzko informazioa ematea.

6. artikulua. Kontsulta-eginkizuna

Estatutuen eta barne-erregelamenduen interpretazioari buruzko irizpen eta gomendioak eman ahalko ditu Batzordeak, EH Bilduko organoek edo bilkideek eskatuta.

Idazki bidez egin beharko dira kontsultak, zalantzaren arrazoia edo interpretazioaren premia justifikatuz.

7. artikulua. Babes-eginkizuna

Batzordeak estatutuetan, erregelamendu honetan edo EH Bilduren antolamendu-printzipioetan aitortutako eskubideak urratzeagatiko babes-eskaerak izapidetuko ditu, bilkideek edo gobernu-organoek jarritakoak, beren eskubide propioen defentsan.

Bide honetatik baztertuta daude prozedura zigortzaileak, hurrengo artikuluan araututako barruko babes-errekursoaren ildo espezifikoarekin arabera arautuko baitira.

Kontraesanezko prozedura bat bermatu beharko da eskaera horiek izapidetzen diren bitartean, erregelamendu honetako 27.-30. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

8. artikulua. Barne-babeseko eginkizuna diziplina-prozeduretan

Batzordeak bere eginkizun ebazlea egikarituko du bigarren auzialdiko organo gisa diziplina-prozeduretan barne-babeseko errekursoa (diziplina-errekursoa) izapidetzearen eta ebatztearen bidez, erregelamendu honen 31.-33. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz.

Batzordeari egokituko zaio funtsezko eskubideen balizko urraketa balioestea, eta, horrekin batera, errekurritutako ebazpen zigortzaileen legezkotasuna, proportzionaltasuna, defentsa-eskubideen errespetua, eta antolamendu-printzipioetara egokitzen direla berraztertzea.

Barne-bidea agortuko du Batzordearen ebazpenak eta frogatzeko moduan jakinarazi beharko da.

9. artikulua. Erabakiak inpugnatzeko eginkizuna

Estatutuen edo indarreko legeriaren aurkakoak direla iritzitako EH Bilduren organoek hartutako erabakien aurkako inpugnazioak aztertuko ditu Batzordeak.

Erabakia hartu edo jakinarazten denetik hurrengo hamar (10) egun baliodunen barruan egin beharko da inpugnazioa idazki bidez.

Ez dira onartuko epez kanpo aurkeztutako eskaerak.

Alegazioen fase bat, frogen fase bat eta justifikatutako ebazpena barnean hartuko ditu prozedurak gehie-
nez bi (2) hilabeteko epearen barruan inpugnazioa aurkeztzen denetik.

Batzordeak modu justifikatuan erabaki ahalko du inpugnatutako erabakiaren ondorioen kautelazko ete-
tea, kalte larri eta sendoa egiaztatzen denean.

10. artikulua. Urteko txostena

Batzordeak urteko txosten bat egingo du, ohiko kanalak erabiliz bilkide guztien eskura jarriko dena, eta horrela aurkeztutzat joko da Batzar Orokorraren aurrean.

Txostenak, gutxienez, honako eduki hauek jasoko ditu:

1. Aztertutako gaien kopurua eta tipologia.
2. Hartutako ebazpenak.
3. Arau- eta antolamendu-arloko gomendioak.
4. EH Bilduren berme-printzipioen betetze-mailaren ebaluazioa.

Txosten hau organo guztien eta bilkide guztien eskura egongo da, gardentasun-printzipioa aplikatuz. Era berean, edozein bilkidek informazio osagarria eskatu ahal izango du.

III. Titulua. Barne-funtzionamendua

I. Kapitulua. Barne-antolamendua

11. artikulua. Presidentzia eta Idazkaritza

Bere kideen gehiengoz hautatuko dira Batzordeko Presidentzia eta Idazkaritza.

Presidentziari dagokio bilerak deitzea eta moderatzea, lana koordinatzea eta Batzordea ordezkatzeko.

Aktak egingo ditu Idazkaritzak, eta, horrekin batera, erregistro eta artxibo dokumentala kudeatuko du, eta komunikazioak zainduko ditu.

12. artikulua. Behin-behineko ordezkapenak

Presidentzia edo Idazkaritza aldi baterako ez badaude, Batzordeak haien behin-behineko ordezkapena adostu ahalko du gainerako kideen artean ohiko funtzionamendua bermatzeko.

13. artikulua. Kide-izaera errebokatzea eta galtzea

Honako arrazoi hauengatik galduko da kide-izaera:

1. Heriotza.
2. Dimisio espresua.
3. Eskubide beteko bilkide-izaera galtzea.
4. Ondo ondoko hiru bilkurataraz edo gehiagotara ez bertaratzea, justifikaziorik gabe.

Hegoaldeko Mahai Politikoak pertsona bat hautatuko du postu hutsa betetzeko, ahal dela genero-ordezkaritza eta estatutuen 46. artikuluan xedatutakoa errespetatuz.

14. artikulua. Mugiezintasuna

EH Bilduko zuzendaritza-organismoek ezin izango dute Batzordeko kiderik errebokatu bere agintaldian.

II. Kapitulua. Bilkurak eta deialdiak

15. artikulua. Bilkuren deialdia

Presidentziak deituko ditu ohiko bilkurak aztertzeko gairik dagoenean.

Presidentziaren ekimenez edo gutxienez bi kidek eskatuta deitu ahalko dira ezohiko bilkurak, 15 eguneko gehieneko epean.

16. artikulua. Deialdiaren bitartekoa eta edukia

Telematikoki egingo da deialdia, eta eguna, ordua, lekua eta gai-zerrenda hartuko ditu barnean, deliberatzeko beharrezkoa den dokumentazioarekin batera.

17. artikulua. Quoruma eta erabakiak

Bertaratutako kideen gehiengo sinplez hartuko ditu bere erabakiak Batzordeak.

Berdinketa badago, Presidentziaren kalitate-botoak erabakiko du.

Espediente baten eraginpean dagoen ezein kidek ezin izango du deliberazioan parte hartu, ezta bozketan ere.

18. artikulua. Aktak eta konfidentzialtasuna

Bilkura bakoitzaren akta egingo du Idazkaritzak, lortutako akordioak islatuz.

Kide guztiek konfidentzialtasun zorrotza gorde beharko dute beren eginkizunen egikaritzapenean izandako deliberazioen eta aztertutako gertaeren inguruan.

III. Kapitulua. Erregistroa, komunikazioak eta epeak

19. artikulua. Sarrera-erregistroa

Batzordeari zuzendutako eskari edo komunikazio oro mezu elektroniko bidez egin beharko da kontroletabermebatzordea@ehbildu.eus helbidera, edo EH Bilduren edozein lurralde-egoitzatan utziko den idazki bidez.

Bide horretatik jaso izana adierazten den egunetik aurrera joko da erregistratutzat idazkia.

Dena den, EH Bilduren diziplina-araudian xedatutako epeak betetzeko, ebazpena edo edozein motatako komunikazio presidentearen edo idazkariaren helbide elektronikoaren zerbitzaritik atera den eguna izango da Batzordeak dokumentu-bidalketa egindakotzat hartuko den eguna.

20. artikulua. Komunikazio-bitarteko ofiziala

Batzordeak alderdi interesdunekin izango dituen komunikazioak bitarteko elektroniko ofizialen bidez egingo dira soil-soilik.

Gaitutako harreman-kanala adieraziko da espediente bakoitzean eta frogatzeko moduan jasota geratuko dira egindako jakinarazpen guztiak.

21. artikulua. Epeen zenbaketa

Erregelamendu honetan ezarritako epeak egun balioudunetan zenbatuko dira, salbu eta espresuki kontrako adierazten bada.

Idazkia jakinarazi edo hartu eta hurrengo egunean hasiko dira, eta epearen azken eguneko 23:59an amaituko dira.

Egun baliogabe batekin kointzidituz gero, hurrengo egun baliodunera luzatzen dela ulertuko da.

Larunbatak, igandeak eta jaieguntzat ezarritakoak dira egun baliogabeak.

22. artikulua. Plataforma dokumentala

EH Bilduren kudeaketa dokumentaleko plataforman zainduko dira dokumentu eta jarduketa guztiak, segurtasunaren, trazabilitatearen eta konfidentziasunaren printzipioei jarraikiz.

Eraginpean hartzen dituzten dokumentuetan sartu ahalko dira inplikaturako pertsonak, erregelamendu honek zehaztutakoari jarraikiz.

Erregelamendu honi dagokionez, prozedura baten zati direnak hartuko dira pertsona inplikaturatzat.

IV. Titulua. Prozedurak

23. artikulua. Abstentzioak eta errekusazioak

1. Hurrengo apartatuan adierazitako zirkunstantziaren batean dauden Batzordeko kideak prozeduran esku hartzetik abstenituko dira.
2. Honako hauek dira abstenitzeko arrazoiak:
 - A. Aztertuko den gaian interes pertsonala izatea
 - B. Ezkontza lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradu-rainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza ahaidetasunezkoa, interesdu-netako edozeinekin, edo haietako edozeinekin lan- edo merkataritza-harremana izatea, edo pa-reko harremana.
 - C. Aurreko apartatuan aipatutako pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusezin nabar-mena izatea.
3. Prozeduraren zati diren pertsonak Batzordeko edozein kideren errekusazioa eskatu ahalko dute au-rreko paragrafoko abstentzio-arrazoren bat dagoela irizten badiote.
4. Batzordeak errekusazio-eskaerari buruz ebatziko du, eta ez da haren erabakiaren aurkako errekur-tsorik onartuko.

I. Kapitula. Interpretazio-kontsultak

24. artikulua. Kontsultaren hasiera

Edozein bilkidek EH Bilduren barne-arauei buruzko interpretazio-kontsulta egin ahalko du Batzordean, mezu elektroniko bidez kontroletabermebatzordea@ehbildu.eus helbidera idatzita, edo EH Bilduren edozein lurralde-egoitzatan utziko den idazki bidez.

Kontsulta sinatu egin behar da eta argi oinarritu behar du interpretazio-zalantzaren xedea.

25. artikulua. Izapidetzea

Presidentziak kontsulta jaso izana adieraziko du eta kontsulta Batzordeko kideen esku jarriko du plata-forma dokumentalaren bidez.

Hurrengo ohiko edo ezohiko bileran aztertuko da kontsulta, eta dagokion txostena egiteaz arduratu den ponente bat hautatuko da. Ponenteak alde zuzeneko erreakzioak edo arau-erreakzioak eskatu ahalko diz-kio Idazkaritzari.

26. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

Batzordeak hogeita hamar (30) egun balioduneko gehieneko epean ebatziko du kontsulta, Batzordeko Presidentziak jaso izana adierazten duenetik zenbatzen hasita.

Gehiengoak onartuko du interpretazio-txostena eta kontsulta egin duenari kontsulta egin den bitarteko beretik bidaliko zaio, eta plataforma dokumentalean artxibatuko da.

Batzordeak uste badu kontsultak arau baten interpretazio orokorra hartzen duela eraginpean, erakunde osorako baliaigarria izango den irizpide orientatzaile bat eman ahalko du.

II. Kapitulua. Babes-eskaerak

27. artikulua. Eskaera jartzea

Beren estatutu-eskubideak, antolamenduzkoak edo erregelamendu honetan onartutakoak urratuak izan direla uste duten bilkideek babes-eskaera jarri ahalko dute Batzordean hamar (10) egun balioduneko epean gertaera jazo denetik edo jakinarazi denetik, Batzordeari zuzendutako idazki arrazoituaren bidez.

Gertaerak eta ustez urratutako eskubideak azaldu beharko ditu idazkiak, eta eskuragarri dagoen dokumentazioa erantsi, eta mezu elektronikoko bidez aurkeztu beharko da kontroletabermebatzordea@ehbildu.eus helbidean, edo EH Bilduren edozein lurralde-egoitzatan utziko den idazki bidez.

28. artikulua. Prozeduraren bermeak eta faseak

Babes-eskaerak izapidetzen direnean kontraesanezko prozedura bat bermatu beharko da, eta honako fase hauek bilduko ditu:

1. Batzordeak eskaera onartu dezakeela egiaztatzea.
2. Inplikaturako alderdiari edo alderdiei jakinaraztea eta hamar (10) egun balioduneko epea zabaltzea alegazioak aurkezteko.
3. Hamar (10) egun balioduneko epe erkidea zabaltzea alderdiek frogak proposatu eta gauzatu ditzaten.

Presidentziak Batzordeko kide bati agindu ahalko dio espedientearen instrukzioa, eta hark prozeduraren objektibotasuna bermatu beharko du.

29. artikulua. Ebazpena

Batzordeak justifikatutako ebazpena eman beharko du bi (2) hilabeteko epean eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita.

Honako hauek egin beharko ditu ebazpenak:

1. Gertaerak aztertu.
2. Egindako frogak balioetsi.
3. Urratutako eskubideei buruz bere iritzia espresuki adierazi.

4. Eta, kasuan-kasuan, neurri zuzentzaileak edo erreparazio-neurriak ezarri.

30. artikulua. Kautelazko neurriak

Babes-eskaera izapidetzen den bitartean, justifikatutako kautelazko neurriak hartu ahalko ditu Batzordeak, kalte konponezinak saihesteko beharrezkoak direnean edo gatazkan dauden eskubideak zaintzeko.

Neurri horiek Batzordeko edozein kidek proposatu ahalko ditu, edo eraginpeko pertsonak, eta behar-beharrezkoa den denbora baino ez dute iraungo.

III. Kapituluak. Diziplina-errekurtsoak

31. artikulua. Errekurtsoaren xedea

EH Bilduren organo zigortzaileak emandako ebazpen zigortzaile irmoen aurka errekurtsoa aurkeztu ahalko da Batzordean, ebazpena jasotzen denetik hamar (10) egun balioduneko epearen barruan.

Errekurtsoak oinarri dituen egitatezko eta zuzenbidezko oinarriak azaldu behar ditu, eta zigorra eteteko eskaera barnean hartu ahal izango du eta mezu elektronikoki bidez aurkeztu beharko da kontroletaberme-batzordea@ehbildu.eus helbidean, edo EH Bilduren edozein lurralde-egoitzatan utziko den idazki bidez.

32. artikulua. Errekurtsoa izapidetzea

Errekurtsoa jaso ondoren, Batzordeak izapidetzeko onartuko du eta alderdiei helaraziko die alegazioetarako hamar (10) egun balioduneko epean.

Gehienez ere hamar (10) egun balioduneko frogaldia ireki ahalko da, eta ebazpen-proposamena egiteaz arduratuko den ponente bat hautatuko da.

Batzordeak ohiko edo ezohiko bilkuran deliberatuko du espedienteari buruz.

33. artikulua. Ebazpena

Batzordeak berrogeita bost (45) egun balioduneko epean ebatziko du errekurtsoa, justifikatutako ebazpen bidez, eta bi aukera izango ditu:

1. Ezarritako zigorrak osorik edo partzialki berrestea, aldatzea edo errebokatzea.
2. Ekitatean eta alderdiaren printzipioetan oinarritutako soluzio alternatibo bat proposatzea.

Honako hauek bildu beharko ditu ebazpenak:

1. Balorazio juridiko oso bat,
2. Zigorraren proportzionaltasunari buruzko erabaki espresu bat,
3. Eta frogatzeko moduan jakinaraziko zaie alderdiei.

Ebazpen honek barne-bidea agortzen du.

IV. Kapitula. Erabakien inpu nazioak

34. artikulua. Inpu nazioaren aurkezpena

EH Bilduko organoek hartutako erabakiak inpu gnatu nahi dituzten bilkideek edo organoek hamar (10) egun balioduneko epean egin beharko dute ebazpena hartzen edo jakinarazten denetik, Batzordeari zuzendutako arrazoitutako idazki bidez.

Idazkiak argi identifikatu beharko du inpu gnatutako erabakia, inpu nazioaren funtsak azaldu eta, kasuan-kasuan, erabakiaren kopia erantsi.

35. artikulua. Izapidetzea

Inpu nazioa onartu ondoren, inplikatutako alderdiei helaraziko zaie alegazioak egin ditzaten hamar (10) egun balioduneko epean, horren ondorengo hamar (10) egun balioduneko epe erkidearekin frogak proposatzeko eta gauzatzeko.

Batzordeak informazio gehigarria jaso ahal izango du, edo dokumentazioa eskatu beste organo batzuei, beharrezkoa dela uste badu. Horretarako, instruktore bat hautatu ahal izango du edo erregelamendu honetan araututako laguntza teknikoa baliatu.

36. artikulua. Inpu nazioaren ondorioak

Inpu nazioa aurkezteak ez ditu etengo inpu gnatutako erabakiaren ondorioak, salbu eta Batzordeak erabakiaren justifikatutako etetea erabakitzen badu.

Bere ebazpenean, honako erabaki hauek hartu ahal izango ditu Batzordeak:

- A. Erabakia deuseztatzea deklaratu,
- B. Erabakia errebokatzea agindu,
- C. edo erabakia baliozkoa izateko baldintzak ezarri.

V. Titulua. Azken xedapenak

I. Kapitulua. Laguntza teknikoa

37. artikulua. Teknikari bat izendatzea

Batzordeak prestakuntza juridikoa edo barne-araudian esperientzia nahikoa duen teknikari laguntzaile bat izendatu ahalko du Batzordeko edozein kidek eskatuta eta osoko bilkuraren erabakiz.

Pertsona hori EH Bilduko zerbitzu juridikoetatik etorritakoa izan liteke, edo prestakuntza baliokidea duen barruko pertsona bat edo bilkide bat.

38. artikulua. Laguntza teknikoaren eginkizunak

Teknikariak betiere prestaketa-lanak eta barne-txostenak egingo ditu ponenteak edo espedientearen instruktureak eskatuta.

Teknikaria arau-azterketaz, administrazio-izapidetzeaz eta proposamenak idazten laguntzeaz arduratuko da, baita Batzordearen mandatupean adiskidetze-ekitaldiak bultzatzeaz ere.

Deliberazioetan parte hartu ahalko du, baina ez bozketetan, eta abstenitu egin beharko da zuzeneko afektazio pertsonala dagoen kasuan.

II. Kapitulua. Interpretazioa, aldaketa eta indarraldia

39. artikulua. Erregelamenduaren interpretazioa eta aplikazioa

Batzordea da erregelamendu hau interpretatzeko organo eskuduna.

Zalantzak edo hutsuneak EH Bilduren estatutuetara, Diziplina eta Berme Kodera, eta zuzenbidearen printzipio orokorretara joaz bideratuko dira.

Bere jardunean, legezketasunaren, ekitatearen, proportzionaltasunaren eta funtsezko eskubidea babestearen irizpideak aplikatuko ditu Batzordeak.

40. artikulua. Erregelamenduaren aldaketa

Honela aldatu ahalko da erregelamendu hau:

- A. Batzordearen beraren ekimenez.
- B. Hegoaldeko Mahai Politikoaren proposamenez.

Funtsezkoak ez diren aldaketak Batzordearen gehiengo sinplez aldatu ahalko dira. Aldaketa horiek He-goaldeko Mahai Politikoaren eskueran jarri beharko dira, baita bilkide guztien eskueran ere, erakundea-ren kanal ofizialen bidez, sartutako aldaketen publizitate, trazabilitate eta gardentasun egokia bermatuz.

Funtsezko aldaketek EH Bilduko Batzar Nagusiaren berrespena beharko dute, estatutuetan ezarritakoari jarraikiz.

41. artikulua. Indarrean jartzea eta indarraldia

2025eko irailaren 20ko EH Bilduren Batzar Nagusiak onartu ondoren jarriko da indarrean erregelamendu hau.

Indarraldi mugagabea izango du, erregelamendua indargabetzen den arte edo estatutuei jarraikiz onar-tutako beste batek ordeztzen duen arte.

Aldaketen historia

DATA	BERTSIOA	NORK SORTUA	ALDAKETAREN AZALPENA
2025/09/20	1.0	Batzar nagusiak (Konferentzia politikoa)	Oinarrizko dokumentuaren eraketa

I. Eranskina: Kontrol eta Berme Batzordearen aurrean jarduteko gida praktikoa

Prozedura	Xedea	Abiarazlea	Adibidea
Diziplina-errekurtsoa	Diziplina-zigorrak	Zigortutako pertsona	Diziplina-faltengatiko zigorra
Babes-eskaera	Eskubide propioen urraketa	Bilkideak edo eraginpeko organoa	Batzar batean parte hartzeko eskubidea ukatzea
Erabakiak inpugnatzea	Akordio organikoen legaltasuna	Bilkideak edo organoa	Laguntza politikorako akordioa estatutu-babesik gabe
Interpretazio-kontsultak	Estatutuen eta barne-erregelamenduen interpretazioa	Bilkideak edo organoa	Nola zenbatzen dira estatutuetako egun baliodunak edo baliogabeak?

ehbildu